

B750!

BERGARAKO 750.
URTEURRENEKO
ALDIZKARIA
1. zenbakia
2018ko ekaina



Bergarako Udal Artxiboa

14-15 Ekainaren 29ko emankizuna

Iragana eta etorkizuna ikuskitzen errepikaezinean

- 05 Erakusketa eta hitzaldiak.
- 07 Bergarako Herri-curriculumua lantzen.
- 13 Bergara Hiria Emakumezkoen Kirol Txapelketak.

Aurrera begira



Elena Lete / Bergarako alkatea

Azkarregi bizi gara, abiaduran, eta noizbehinka atzera begiratu beharra dago, nor garen, nolakoak garen eta norantz jo nahi dugun hausnartzeko. Oraingoa halako unea da: aurten 750 urte bete dira Bergarak Hiri Gutuna jaso zuenetik. Historia luzea dugu atzetik, gure arbasoek lan eta lorpen handiak egin dituzte; eta horrek guztiak garena, gure izaera, zizelkatu du.

Urteurren honetan izan garena gogoratzeko tarteak hartuko ditugu eta adituen laguntzaz gure historiako pasadizoak eta lorpenak belaunaldi gazteagoi helaraziko dizkiegu, haiek herria eraikitzen jarrai dezaten.

Balioko digu gurean dauden eta egunerokoan arreta ematen ez diegun hainbeste altxor balioan jartzeko, gure bidelagunak direnei merezitako keinua egiteko, gure balioak berraztertzeko, alor guztietako sormena hauspotzeko, berdintasunean ekiten jarraitzeko eta Bergara hobeto bat bermatzeko.

Urteurrena gailu berezia dugu herria batzeko, (...) Bergara erakusteko eta, bide batez, bergarar izaera harrotasunez aldarrikatzeko.

Izan ere, urteurrena gailu berezia dugu herria batzeko, elkarlana sustatzeko, nolako Bergara nahi dugun guztion artean definitzeko, ezagutzen ez gaituztenei Bergara erakusteko eta, bide batez, bergarar izaera harrotasunez aldarrikatzeko.

MIRANDO HACIA ADELANTE

Vivimos a gran velocidad y de vez en cuando conviene parar y mirar hacia atrás, para reflexionar sobre quiénes somos y hacia dónde vamos. Esta efeméride es un buen momento para ello: contamos con una gran historia, nuestros antecesores han hecho un gran trabajo, y todo ello conforma lo que somos, nuestro carácter. Queremos reflexionar y recordar lo que hemos sido para transmitírselo a las nuevas generaciones y que éstas sigan construyendo Bergara.

Este aniversario ha de valer para poner en valor tantos tesoros con los que contamos y no apreciamos en su justa medida, para hacer un guiño a tantos compañeros de viaje, para seguir fomentando la creatividad, seguir haciendo hincapié en la igualdad y en la colaboración, para que nos conozcan y nos visiten, y para construir entre todos y todas una villa mejor.



Orain artekoak

Bergarako historiaren sintesi liburuxka.

Herritarrez osatutako 750. urteurreneko Mahai Historiko Zientifikoak, Eusko Ikaskuntzaren laguntzarekin, 'Bergarako historiaren sintesi labur eta dibulgatiboa, 750. urteurreneko ekitaldien oinarri gisa moldatuta' liburuxka idatzi zuen. Udalak liburuxka elebiduna argitaratu eta herritarren esku jarri du doan. Interesatuak liburua eskuratu dezakete Udal Artxiboan edo Udal Bibliotekan.

Síntesis de la historia de Bergara.

La Mesa Histórica-Científica del 750 aniversario de Bergara, compuesta por ciudadanos y ciudadanas de Bergara, ha redactado con la ayuda de Eusko Ikaskuntza 'Breve síntesis divulgativa de la historia de Bergara', un trabajo bilingüe que el Ayuntamiento ha publicado y ha puesto a disposición de la ciudadanía de forma gratuita. Los ejemplares se pueden adquirir en el Archivo Municipal y en la Biblioteca Municipal.

Mariaren Lagundia Ikastolak, Erdi Aroko Azoka.

Herriko Mariaren Lagundia Ikastolak Bergararen 750. urteurrena gogoan izan du ikasurtean. Hala, hilabetetan proiektu gisa landu dute gai hori eta horren ondorioz bertako hainbat ikaslek Erdi Aroko Azoka antolatu eta antzestu zuten Muniben. Deigarria eta interesgarria izan zen ekimena.

Aratusteetan Bedelkarrek Bergaran 750 urte atzera.

Bedelkar elkarteak osatzen duten udalerriko merkataria eta bestelako negozio askok, Bergararen 750. urteurrena argudio hartuta, Erdi Aroko *look*-arekin mozturrotu zituzten beraien negozioak Aratusteetan.





Bergara, nondik dator eta nora doa

Partaideetako batzuk irudian; ezkeretik eskumara: Juan Martin Elexpuru, Izaskun Labaien, Patxi Larrañaga, Miguel Angel Alvarez, Anaje Narbaiza eta Andoni Larrañaga.

Urteurrenaren oinarri historikoa finkatzeko, hainbat herritarrek osatutako mahai historiko zientifikoa jarri zen martxan 2017ko udazkenean. Bergarako historia oparoso modu labur eta dibulgatiboan sintetizatzea eta azpimarratu beharreko elementu nagusiak nabarmentzea zen erronka. Mahaikideak Eusko Ikaskuntzako Lourdes Odriozola historialariarekin elkarlanean aritu dira.

Bergarak Hiri Gutuna jaso zuela 750 urte. Historia luzea. Lan asko egin duzue hori ezagutzera ematen laguntzeko. Zer da urte guzti hauetan herri moduan atzera begira ahaztu ezin duguna? Hemen aspalditik bizi da gizakia, Elosua zein Angoizar aldeko megalitoek gogoratzen diguten bezala. Baina historia ezaguna azken mende hauetakoa da batez ere, aberatsa, distiratsua batzuetan. Pasarte nagusiak jaso ditugu sintesian, horietako batzuk nabarmenduz: 1268ko sorrera administratiboa bera; udalerraren lurralde-eraketa progresiboa; guraizeen industria XVII. mendean; Bergarako 'azulak' XIX.-XX. mendeetan; kulturaren eta hezkuntzaren alde etengabe egon den apustu irmoa eta horri lotuta zientziaren historian lortutako protagonismoa; industrian emakumeak izan duen presentzia aitzindaria; eta herri mugimenduek azken mendean izan duten indarra. Denak dira garrantzitsuak Bergara ulertzeko.

Badira gehiago noski. Esate baterako, ikusi dugu atzera begiratze honetan hiri eremua gailentzen dela, landa eremua ere beti hor egon den arren. Euskal Herriko baserrien artean zaharretako eta ederrerenetako batzuk hemen ditugu eta hor dago ere Agarreko garaia, gure historia aberats baten lekukoa dena.

Beste arlo batean, egiaz-tatu dugu Bergaran ere emakumeak historian izan duen papera ezkutuan gelditu dela eta desoreka hori zuzentzen saiatzeko lan egin beharko genukeela. Sorrera-garaia bera, bergararron aisialdia historian zehar, paisaiaren bilakaera eta beste hainbat gai nahikoa ikertu gabe dauzkagula ere ikusi dugu.

Modernitateak pisu itzela izan du gure historian. Hor daude gure izaera eta oinarri nagusiak? Beste herrialde batzuetako aurrerapenei atea ireki izan die Bergarako historiako une batzuetan. Gogoratu, adibidez, Euskalerraren Adiskideen Elkarteak XVIII. mendean martxan jarri zuen

Bergarako Errege Seminarioa, hainbat aspektutan modernitate itzelekoa. Bertan lortutako aurkikuntzek (Wolframarena da ezagunena), zientziaren historian protagonista bihurtu zuten Bergara.

Egiari zor, esan beharra dago historia unibertsalean kokatu gaituen mugimendu ilustratu hura elite batzuen jardueraren emaitza izan zela gizartea bera oso tradizionala mantentzen zen garaian. Dena den, modernizatzeko grina hainbat aldiz azaleratu da ondoren ere herrian.

Elkartegintzak berebiziko garrantzia dauka Bergaran.

Nondik dator eta norantz doa? XX. mendean hasiera hasieratik elkartu ziren herritarrak aisialdiari lotutako jarduerak antolatzeke, kirol arloan etab. Baina 70eko hamarkadan herritar-mugimendu berezia sortu zen Bergaran. Oso esperientzia berezia izan zen, herritarrak beren zerbitzu eta jardueren eragile eta hartzaile bihurtu baitziren.

Promoción Cultural eta Alkartu-Nai elkarteek biztanlegoaren zati handi bat mobilizatu zuten osasun, gizarte eta hezkuntza zerbitzuak hobetzeko. Emaitza bikainak lortu zituzten (lehen ambulanzia, zaharren egoitza, San Migel patronatua, Aransgi, Gureak...) baina gainera, bergararizatearen nortasuna eta harrotasuna zabaldu zuten, eta baita kultura demokratiko berria ere.


Garaiak aldatu dira baina administrazio publikoen eta herritar mugimenduen elkar-lana beharrezkoa dela jakina da. Etorkizuneko historialariek baloratuko dute zenbateraino lortzen den hori aurrerantz.

MESA CIUDADANA HISTÓRICO-CIENTÍFICA

En el contexto de los preparativos del 750 aniversario de Bergara, un grupo de ciudadanas y ciudadanos, asiduos a la historia, decidieron reunirse para unificar y marcar las bases de la historia de nuestra villa. Fruto de su trabajo es la redacción, con la ayuda de Lourdes Odriozola de Eusko Ikaskuntza, y edición por parte del Ayuntamiento de la publicación 'Breve síntesis divulgativa de la historia de Bergara', cuyos ejemplares están disponibles gratuitamente en el Archivo Municipal y en la Biblioteca.

Estos ciudadanos y ciudadanas, que siguen trabajando por y para la historia, destacan la importancia que Bergara tiene en muchos apartados (históricos, artísticos, científicos, divulgativos, asociativos...) y nos adelantan de que queda mucho trabajo por hacer: visibilizar a las mujeres de Bergara, al ámbito rural, al cambio paisajístico y un largo etcétera.

Tendremos más noticias de su ingente labor, sin ninguna duda. ¡Eskerrik asko por esta dedicación!!



Bergarako Udal Artxiboa.

TRAÍDA DE AGUAS DE POL-POL

La traída de aguas de Pol-Pol se dio en julio de 1902, una fecha a celebrar en su día y a recordar en la historia de nuestra villa. Aquel día se bendijeron las nuevas instalaciones, se organizó una comida popular y se colocó una gran fuente en la plaza San Martín Agirre. Bergara vivió grandes cambios a finales del siglo XIX y la traída de aguas, mediante una obra faraónica para la época, dio respuesta a una necesidad acuciante.

El 23 de septiembre se realizará una visita guiada para visitar y entender la importancia de aquellas instalaciones.

Iraganeko ahaleginen aztarnak oraindik ikusgai: Pol-poleko uren ekarrera

1902. urtea.

1902ko uztailean inauguratu zen Pol-Poleko uren ekarrera. Herriko ur hornidura bermatzea aurrerapen handia zen, ospatzekoa. Inaugurazio egunean instalazio berriak bedein-katu, bazkari herrikoi bat antolatu eta San Martin plazan iturri handi bat jarri zen.

XIX. mendearen bigarren erdian Bergara modernitate-rantz aldatzen hasi zen. Industrializazioa finkatu zen, tren iritsi eta hiribilduan zerbitzu eta azpiegitura berriak garatu ziren: Ospitale Santua (1855), Matxiategiko hilerri berria (1855), epaitegia eta espetxea (1870), azokako eraikin berria San Martin plazan (1901), aisialdirako pasealekuak Bideberri (1862) eta Espoioian (1872) etab. Bergarako pentsa-

moldea aldatu zuen eta baita fisionomia ere.

Higienearen arloko beharrei erantzuna emateko, ur-hornidura moderno bat izatea ezinbestekoa zela ikusi eta horretarako egin zen Pol-Poleko uren ekarrera.

Ura eta argindarra

Uren ekarrera 1890aren inguruan jarri zuen martxan Udalak. Udan iturri eta garbitokietan izaten zen urritasunari aurre egingo zion eta etxebizitzetara hornidura modernoa eramateko abiapuntua izango zen. Helburu osagarri bezala, urak mendian behera egin behar zuen saltoa aprobetxatuz, argindarra sortu nahi zen.

Horretarako prestatu zen instalazioa konplexua zen benetan. Urak Irukurutzetako

magalean batu ondoren, hainbat kilometrotan zehar garraiatzen ziren, zementuzko ubide batetik Pagola alderaino. Loidi mendian, urak magal batetik bestera pasatzeko, 500 metroko tunel tunel bat zulatu behar izan zuten. Hortik, 300 metrotako saltoari esker, urak Aranen egindako indar-etxe berrira jausten ziren turbina baten bidez argindarra sortzeko. Hemendik, 300 metrotako ubide bat eta salto berri bat pasatu ondoren, urak Iraburuko depositura iristen ziren, bertatik herria hornitzeko.

Instalazio berriak kostu izugarria izan zuen eta 1902ko uztailean inauguratu zen. Gregorio Sasieta bertsolariak proiektu honen berri eman zuen, hamalau bertsoetan. Hona hemen laugarrena:

*Ur guztiz onak ta ugariak
jarri dira edateko,
chimista-arguia kalean berriz
gabaz argui eguiteko
indarra ere bai alanbretatik
fabrika erabiltzeko
gauza oriek eztira egin
erriaren kalterako*

Irailaren 23an, txangoa

40 bat urte dira Pol-Poleko uren ekarrera baztertu zela, baina instalazio haren aztarna interesgarri ugari dago oraindik: menditik ura ekartzeko ubidearen zatiak, Loidiko tunela, Araneko indar-etxea, Iraburuko depositua. Horiek ezagutzeko, goizerako txango bat antolatu du Udalak, irailaren 23rako. Izen-ematea *Laboratorium museoan* egin behar da.

Erakusketa eta hitzaldiak

Bergarako historiari buruzko programa berezia ari da prestatzen Udala. 750 urteurrena oinarri, herri honek duen historia luzearen pasarte batzuk gogoratuko ditu eta herri izatearen inguruan hausnarketa eragiten saiatuko da. Guztiaren oinarrian dago Mahai Historiko-zientifikoak egindako historia sintesia.

Erakusketa kalean

Udalak aldi baterako egitura bat jarriko du kalean, Bergarako historiaren bost pasarte berezi gogoratzeko: 1268ko sorrera ofiziala, udalerraren eraketa (hasierako lurrak, hurrengo mendeetan gaineratutakoak / desanexionatutakoak), hezkuntza eta zientzia herriak izan duen distira, emakumeak industriari izan zuen presentzia aitzindaria eta 70eko hamarkadako herri mugimendua. Kaleko erakusketa honekin, urteurrena gerturatu eta aldi berean, herritarrek Laboratorium museoa izango den aldi baterako erakusketara gonbidatu nahi ditu Udalak.

Aldi baterako erakusketa Laboratorium museoa

Erakusketak herria sortu eta garatzen joateak ekarri zituen oinarriko lau berrikuntza hauek gogoratuko ditu: lurralde ikuspegi berri bat, pertsonen elkarbizitzarako arau berriak, ekonomia eredu berri bat eta kultur garapen berri bat.

- Lurralde ikuspegian eta daukagun informazioaren arabera, 1268 ondoren jaio zen Bergarako hirigintza. Hasierako gunea Goenkale, Artekale eta Barrenkalek osatuko zuten. Ondorengo gara-

pena distiratsua izan da hainbat unetan eta 'Bergara monumental' da horren lekukoa.

- Elkarbizitzari dagokionez, Hiri Gutunak lehen arau eta eskubideak ezarri zizkien bergarar izango zirenei. Hasierako antolakuntza, aurrerapen historikoak eta gaurko udal antolakuntzara arteko bidaia izango dugu erakusketan. Elkarbizitzan sortutako liskarrak ere gogoratuko ditugu.

- Hiribilduaren garapenarekin ere 'bi Bergara' bereizten hasi ziren, landa eremuko eta hiribilduko. Familia-harremenek, harreman ekonomikoek eta hainbat kultur ezaugarri lotzen zituzten bi Bergarak, baina hiribildua garatzen joan zen neurrian, hirietan ematen diren aldaketa garrantzitsuak nabarmen egiten hasi ziren hemen ere: kulturaren garapena eta baita ekonomiarena ere. Elkarrekin bizitzeak posible egiten du hori.

Lurraldea, elkarbizitza, kultura, ekonomia... Arlo horien guztien kudeaketa egokia ezinbestekoa da, gaur egun ere, herri batek etorkizun oparoa izan nahi

badu. Horregatik, iragana ezagutu bai baina etorkizunari buruzko hausnarketa ere proposatzen saiatuko da erakusketa. Horretarako, objektu historiko originalak, dokumentu garrantzitsuen faksimileak, herrigune historikoaren maketa bat, ikus-entzunezkoak etab. izango dira ikusgai. Erakusketa udan irekitzeko lanean ari da museoko lan taldea. Ohikoa den bezala, behin erakusketa ireki ondoren bisita gidatuak eskainiko ditu museoak, publiko desberdinentzat egokituak.

Hitzaldiak

Erakusketa bidez azalduko diren gaien osagarri, udazkenerako hitzaldi ziklo aberatsa ere prestatzen ari da museoa, Mahai Historiko-zientifikoak egindako proposamenak jarraituz. Hitzaldiak urria eta abendu artean izango dira. Behin betiko agenda irailean iragarriko da, baina hauek dira aurreikusitako gaiak:

- 1268. Erdi Aroko Bergara. Testuinguru eta gizarte bizitza.
- Bergara Aro modernoan (XVI-XVIII). Monumentuak eta gizartea.
- Emakumea Bergaran Aro Modernoan.
- Euskara Bergarako historian.
- RSBAP erakundearen proiektua Bergaran.
- Baserriaren eta baserriarren historia Bergaran.
- Abizenak, leinuak eta oinetxeak Bergaran. Patxi Larrañagaren ikerlanaren 2. liburuen aurkezpena.

Hitzaldiak publiko orokorrari zuzenduko dira eta Bergarako historia eta bergararren historia ekarriko dute gogora.

EXPOSICIONES Y CHARLAS DIVULGATIVAS

El Ayuntamiento está preparando un programa especial sobre la historia de la villa partiendo como base de la síntesis histórica realizada por la Mesa Histórico-científica. De esta manera, durante este amplio programa se repasarán importantes retazos de nuestra historia con el objetivo de reflexionar sobre los logros del pasado y el desarrollo vivido.

Por una parte, se habilitará una exposición al aire libre que hará especial hincapié en cinco hitos de nuestra historia. Esta exposición invitará

a acercarse al Museo Laboratorium para recordar cuatro áreas de importancia: nueva visión territorial; nuevas normas de convivencia; modelo económico; y desarrollo cultural.

Así mismo, se están organizando una serie de conferencias abiertas al público que se desarrollarán principalmente en otoño. Estas versarán sobre Bergara en la Edad Media; Bergara en la época moderna; La mujer en el período moderno; El euskera en nuestra historia; Historia de los caseríos y baserriarres; Apellidos y linajes; y otros.

> Indusketa San Migelen

750. urteurrenean ikerketak ere izango du bere lekua. Ekainetik aurrera Aritzetaiko San Migel basilizian indusketa arkeologikoa egingo du losu Etxezarrraga historialariak, XI. mendeko edo aurreko aztarnak topatzeko eta garai hartako ezagutza hobetzeko.

Bergarako Udalak diruz lagunduko du proiektua. Izan ere San Migel da Bergarari buruzko lehen aipamen idatzian azaltzen den lekuetako bat, XI. mendean jada, lurraldea Nafarroako Erresumaren parte zen garaian.



Ezkerretik eskumara, Iñaki Larrañaga, losune Irazabal eta Jose Mari Larrañaga.

Gaur egun Miguel Altuna Lanbide Heziketa dena 1928an jaio zen, Escuela Elemental de Trabajo Profesional Textil izenpean. Beti aurrera begira, gertukoa izanda eta enpresen beharrei aurreratuta, Miguel Altunak jakin du eraldatzen eta aurrera egiten, betiere enpresei eta kokagune duen herriari estu lotuta.

90 urteko ibilbidean une era-bakiorra bizi izan zuen Miguel Altuna Lanbide Heziketak...

Jose M. Larrañaga: Gure historian zehar hainbat mugarri izan ditugu, aldaketak, momentu zailak eta egokitzapenak. 80ko hamarkadan LHko praktikak derrigorrezkoak izatea inportantea izan zen.

Iñaki Larrañaga: Horren haritik betidanik izan dugu harreman oso estua enpresekin; hasieran enpresek irakasleak jartzen zituzten. Harreman eta konfiantza horren adibidea Bergarako, Antzuolako eta Elgetako enpresek 2001ean gure tailerra aldatzeko 600.000 euro jarri izana; eta 2008an estanzazioarekin lotutako Maiatz proiektua 500.000 euroekin lagundu izana.

Zerk egiten du berezi Miguel Altuna?

JML: Oso ikastetxe herrikoia izan da beti, familia handi bat. 'Elementala' moduan ezagu-

tzea horren adierazgarri da.

Iosune Irazabal: Beti izan dugu gertutasuna enpresekin, momentuko egoerara moldatzekoa hain zuzen ere. Alboan ditudan bi zuzendariak bisio-narioak izan dira eta enpresekin harremanak zaintzearen eta mimatzearen garrantzia garbi izan zuten une oro.

II: Nabarmentzekoa da, baita ere, betidanik irakasleek izan duten konpromisoa.

Zer eman dio Miguel Altunak Bergarari?

II: Aberastasuna, prestakuntza, gertutasuna, prestigioa, heziketa... eta bizipoza. Gazteak erakarri ditugu eta gazteek bizipoza ematen diote herriari.

JML: Punta puntako LHko ikastetxea herrian txertatu genuen. Ezin dugu ahaztu 98an kalitate ziurtagiria lortzen Estatuko lehen hiruetako bat izan ginela.

II: Bergaran sortu izan diren foro ezberdinetan parte hartu

izan dugu, adibidez enpresen lehiakortasuna hobetzeko gure ekarpenak emanez.

Eta Bergarak zer eman dio Miguel Altunari?

II: Binomio bat gara, biok elkarren beharra dugu. Bergarak eman digu nortasuna.

Zer erronka dituzue?

II: Bergarako, bailarako... elementu funtsezkoa izatea eta guztien beharrei erantzuten jakitea LH sendo baten bitartez, iraganean egindakoan oinarrituz, beti aurrera begira. Fisikoki erdigunetik joan arren, herrian gure presentzia mantendu behar dugu, ekimen desberdinen bidez.

Norantz doa Bergara?

II: Erronka handiak ditugu. Historikoki izan duen garrantzia eraldaketa ekonomikoen ondorioz galtzen joan da. Herriko agente desberdinok elkarlanean eta ideiak trukatzeko arituz gero, denon artean Bergara indartzea lortuko dugu.

MIGUEL ALTUNA
LANBIDE HEZIKETA,
90 AÑOS
CONSTRUYENDO
BERGARA

Miguel Altuna Lanbide Heziketa celebra su 90 aniversario. Nacida en 1928 con el nombre de Escuela Elemental de Trabajo Profesional Textil, ha sabido adelantarse continuamente a los cambios, y ha estado siempre muy arraigada con Bergara y sus vecinos. En esta breve entrevista hemos repasado el ayer, el hoy y el mañana de este centro clave para entender mejor el desarrollo de la villa, gracias a Jose Mari Larrañaga e Ina Larrañaga, directores en el pasado, y a losune Irazabal, actual directora. Todos ellos destacan el valor de Miguel Altuna para adelantarse a las necesidades de las empresas del entorno y crear un ambiente de confianza y colaboración con empresas y vecinos que han propiciado la mejora de la calidad de vida en Bergara. Miguel Altuna seguirá creciendo y, aun estando próximamente alejado físicamente del casco urbano apuesta por seguir construyendo Bergara entre todos y todas.



Ezkerretik eskumara, Jaione Isazelaia, Pili Arin, Elisabet Ugarte, Izaskun Labaien, Iñaki Artola, Nerea Cerrejón eta Nerea Madariaga.

BERGARAKO HERRI-CURRICULUMA

Ikasleek Bergarari buruz zer jakin behar duten lantzen ari da Udala herriko ikastetxeekin batera: materiala batzen, sortzen eta udal webgunean argitaratzen. Asmoa da horrekin lotutako mahai jolasa ere sortzea.

Zein da Herri-curriculum egitearen helburua?

Ikasleek beraien herria ezagutzeko. Ikastetxeetan askotariko ezagutzak bereganatzen dituzte ikasleek: batzuk unibertsal, ikasleen bizilekua kontuan izan gabe ezagutu beharrekoak. Baina badira beste batzuk Bergarako ikasleek ezinbestean ezagutu beharrekoak. Horiek ikasleen eskura jartzea da Herri-curriculum lantzea. Hausnartu behar dugu ikasle batek derrigorrezko eskolaratzea bukatutakoan Bergarari buruz zer jakin behar duen, galdera horrek eramango gaitu herriko curriculumaren lanketa egitera. Eta lanketa honek bultzatuko du haur eta gaztearen artean herritartasuna sustatzea.

Nolakoa da prozedura?

Proiektu hau ezinbestean elkarlanean landu behar da, Bergarako ikastetxe guztiak parte hartzen ari dira. Momentuz Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. maila zuzendutako edukiak lantzea adostu da; horregatik, lan-taldean Aranzadi, Mariaren Lagundia, Angiozarko eskola eta San Martin Agirre ikastetxeetako ordezkariak daude, baita irakasle izandako Pili Arin ere. Udalak Urtxintxa elkartearekin kontratatu du, eta berau dabil egitasmoaren koordinazio lanak egiten.

Jasotako informazio guztia nola plazaratuko da?

Hasiera batean materiala Udalen webgunean jasoko da, Gazteria eta Hezkuntza atalaren barruan. Sortzen diren

edukiak web plataforman jaso behar ditugu, edozeinentzat eskuragarri egoteko. Horrez gain, Bergarari buruzko galderetan oinarritutako mahai jolas bat ere egin nahi da. Oso baliabide

aproposada da etxean, lagun artean, eskolan... herriari buruzko ezagutzak modu dibertigarrian lantzeko. Oinarri moduan hartuko da 'Bergara ezagutzen' jolasa.

Hausnartu behar dugu ikasle batek derrigorrezko eskolaratzea bukatutakoan Bergarari buruz zer jakin behar duen.

CURRÍCULUM LOCAL

El Ayuntamiento de Bergara, junto con los centros educativos, está elaborando el currículum sobre Bergara. El objetivo es recabar y difundir conocimientos sobre Bergara para el público estudiantil. Con todo ello se materializará el currículum local. Además, este trabajo y su resultado reforzarán el sentimiento de la juventud hacia su localidad. El Ayuntamiento ha encargado a la empresa Urtxintxa su elaboración y coordinación. Los contenidos se volcarán a la web municipal en el apartado de Juventud y Educación, para que cualquiera pueda consultarlos. Además, se prevé crear un juego de mesa sobre conocimiento de Bergara.



GASTRONOMIA, URTEURRENEKO OSAGAIA



Urteurrenaren baitan herritar eta bisitarien artean gustu ona utziko duen pintxoa egiteko ideia sortu zen. Hala, herriko hainbat elkarte gastronomikok erronka hartu eta pintxo berriak asmatu dituzte. Lehia sanoa baina gogorra izan zen, eta azkenean Madura elkarteko 'Trampantajo' sorkuntza izan da irabazlea. Laster probatu ahal izango duzue herriko hainbat eta hainbat ostalaritza negoziotan. On egin!

Begarako Hiribilduaren sorreraren 750. urteurrena dela-eta, San Antonioko 'Napar Bideak' ferian parte hartzen duten elkarte gastronomikoei (San Migelpe, Gure Ametsa, Sagarpe, Umore-Ona, Artatse, Lasai-Toki eta Altzasu), Begarako Udalarekin lankidetzan, pintxo-lehiaketa antolatu zuten elkarte gastronomikoen artean.

Parte-hartzaile guztien artean Madura, Sagarpe eta Zazpi elkarteak izan ziren finalistak; eta maiatzaren 15ean egindako finalean Madura elkartearen 'Trampantajo' izan da irabazlea. Orain pintxo irabazle hau herriko ostalaritza negozio askotan dastatu ahal izango dugu ekainaren 28ko pintxo-poteo egunetik aurrera.

Pintxo irabazlea herriko ostalaritza negoziotan dastatuko da ekainaren 28ko pintxo-poteotik aurrera.

GASTRONOMÍA, INGREDIENTE PARA EL ANIVERSARIO DE LA VILLA



1.- TRAMPANTOJO

(MADURA Elkarte)

Osagaiak: 2 txanpinoi, ogi xigortua, alioli eta kolorantea, trufa olio. **Bergarako Osagaia:** artoa. Kruz Gallastegik landua eta iker-tua.

Prestaketa: ogia xigortu, txanpinoiak sukaldatu plantxan eta artoarekin ogi gainean muntatu.

1.- TRAMPANTOJO (MADURA)

Ingredientes: 2 champiñones, pan tostado, alioli y colorante, aceite de trufa. **Ingrediente de Bergara:** Maíz elaborado e investigado por Kruz

Gallastegi.

Elaboración: Tostar pan, cocinar los champiñones a la plancha y montarlos encima del pan con el maíz.



2.-PINTXOKO (SAGARPE Elkarte)

Osagaiak: tipulina, ogi xigortua, porrua, bakailo gazitua, piper berdea, perrexila, patata, berakatzeta eta olio. **Bergarako Osagaia:** patata. Rafael Garitano Aldaetak landua eta ikertua.

Prestaketa: ogia xigortu, osagaiak sukaldatu eta gatz ahutsarekin muntatu. Bukatzeko, gainean bakailo jarri.

2.-PINTXOKO (SAGARPE)

Ingredientes: Cebolleta, pan tostado, puerro, bacalao salado, pimiento verde, perejil, patata, ajo y aceite. **Ingrediente de Bergara:** Patata, elaborada e investigada por Rafael Garitano Aldaeta.

Elaboración:

Tostar el pan, cocinar los ingredientes y montar con sal espolvoreada. Para terminar, colocar el bacalao encima.



3.-MARI (ZASPI Elkarte)

Osagaiak: Patata, kipula karamelizatua, olio, txahal masaila eta sagar purea. **Bergarako Osagaia:** Patata. Rafael Garitano Aldaetak landua eta ikertua.

Prestaketa: Patata egosi eta hustu. Masail okelarekin bete eta sagar purea jarri gainean.

3.-MARI (ZASPI)

Ingredientes: Patata, cebolla caramelizada, aceite, carrilleras de ternera y pure de manzana. **Ingrediente de Bergara:** Patata, elaborada e investigada por Rafael

Garitano Aldaeta.

Elaboración:

Cocer la patata y vaciarla. Rellenar con carrilleras de ternera y poner puré de manzana encima.

En los preparativos del 750 aniversario de la villa, surgió la idea de crear un pintxo que dejará buen paladar de boca entre la ciudadanía y las visitas. Varias asociaciones gastronómicas cogieron el guante y se pusieron manos a la obra. Tras una igualada disputa, 'Trampantojoa' de la sociedad Madura es el pintxo elegido. Pronto podremos degustarlo en los negocios hosteleros locales. ¡On egin!

